

NEXTCLOUD: BULEGO BIRTUALA LAINO PRIBATUAN

INFORMAZIO KOMERTZIALA
2022/02

ZER DA NEXTCLOUD?

Nextcloud dokumentuak biltegitzeko eta horiekin lankidetzan aritzeko diseinatutako plataforma bat da, baina horretaz gain, enpresen bestelako beharrak ere asetzen ditu. Horregatik diogu **bulego birtual** modura funtzionatzen duela. Google-en alternatiba etikoa dela esan genezake, izan ere, Google Drive, Docs, Calendar edo Meet-ekin bete daitezkeen funtzioak egin daitezke. **Norberaren laino propioa**, norberak kudeatua sortzeko aukera ematen du, datuen kontrol handiagoa ahalbidetuz.

iametza softwarea instalatzeaz eta parametrizatzeaz arduratzen da, karpeten gaineko baimen-sistematik hasi eta hodeiko beste plataforma batzuetatik dokumentuak migratzeraino (Dropbox, adibidez). Era berean, zerbitzua martxan jartzeko prozesuan laguntzen dugu, beharrezko prestakuntza eta dokumentazioa barne.

iametak ostatatze-zerbitzua ere eskaintzen du, bere garapen-lanen osagarri modura. Horrela, bezeroak zerbitzu zentralizatua du, edozein esku-hartze erraztuz. Pakete guzti hau kontratatzeak zerbitzu hobea eskaintzeko aukera ematen du, honen eguneratzea eta mantentzea errazten baita, behar diren teknologia guztiak behar bezala kontrolatuta izanez.

Nextclouden ezaugarriak



Datuen gaineko kontrola



Pribatasunaren zaintza



Beharren egokitzapena



Edonondik sartzeko aukera



Konexiorik gabeko sarbidea



Ordenagailu eta mugikorren aplikazioak



Babestutako artxiboen bidalketa



Ordenagailu eta mugikorren jakinarazpenak



Baimen desberdinen kudeaketa



Dokumentuen edizioa eta partekatzea



Bideo deiak



Dokumentuen sinkronizazioa



Kontaktuen segurtasun kopiak



Posta elektronikoa



Euskarazko tresna

ZER ESKAINTZEN DUGU IAMETZAN?

Instalazioa eta pertsonalizazioa

Softwarearen instalazioa bezeroaren zerbitzarietan egin daitekeen arren, iametzak kudeatutako zerbitzarietan egiteko aukera dago baita ere. Instalazio eta pertsonalizazio zereginak honakoak dira:

- Karpeten baimen-sistema. "Group folders" pluginaren instalazioa eta bezeroak pasatako irizpideen arabeko parametrizazioa (taldeak sortu eta lehen eta bigarren mailako karpeten baimenak kudeatu).
- "Collabora" sistema martxan jarri eta Nextcloud-ekin lotu, dokumentuen on-line edizioa prestatzeko.
- Xuxen zuzentzailea instalatu.
- Dokumentu guztiak migratu. Enpresak erabilitako biltegiratze sistematik (Dropbox, esaterako) dokumentuak Nextcloud-era ekarri.

Sistemaren abiaraztea

Sistema martxan jartzeko honako ekintzak aurreikusten dira:

- 1-2 orduko formazio-saioa erabiltzaileentzat.
- Oinarrizko dokumentazioaren prestaketa (Nextcloud eta Collabora interfazearen azalpen orokorra eta erabiltzailearen ezarpenen azalpen laburra)
- Lehen egunetako jarraipena.

Ostatatzea eta mantentzea

Iametzarekin ostatatzea kontratatzen baldin bada, bezeroari zerbitzu zentralizatua eman diezaiokegu, edozein esku-hartze erraztuz. Modu berean, eguneratze eta mantentze lanak erraztu eta beharrezko teknologia guztien kontrol egokia izan dezakegu.

Iametzak zerbitzari dedikatuak ditu zerbitzu hau eskaintzeko eta gure prezio politikaren oinarria bezeroei eskaintzen zaien arreta zerbitzua da.

Garapen lanak

Bezeroek plataforma honetan oinarrituta dituzte behar zehatzak aztertzen ditugu eta beharrezkoa eta ahal den kasuetan, garapen pertsonalizatuak egin ditzakegu.

Iametzaren zerbitzarien ezaugarriak hurrengoak dira:

- Datu-zentro espezializatueta kokatuta daude.
- Makinen sarbideari dagokionez, segurtasun-neurri handiak dituzte.
- Zerbitzua uneoro ahalbidetzeko neurri bereziak dituzte (enpresa desberdinetako sare elektrikoak, SAI sistemak eta diesel generadoreak).
- Hornitzaile hauek eskaintzen duten gutxieneko zerbitzuak interneteko %99,9ko presentzia dute.
- Iametzak segurtasun-kopiak egiten ditu. Segurtasun-kopia horiek geografikoki toki desberdinetan banatuak daude eta hornitzaileen zerbitzuaren bat-bateko erorketa gertatzen bada, zerbitzua beste hornitzaile batekin berrabiaraztea ahalbidetzen dute. Horrelako kasuetan zerbitzua berriro martxan jartzeko honelako lanek eskatzen duten denboran (egun batzuk) berrabiarazten du Iametzak zerbitzua.
- Hala ere, bezeroak bere ustez garrantzitsuak diren datuen kopiak egin ahal eta behar ditu, Iametzak ezin baitu zerbitzarietan dagoen informazio guztiaren osotasuna bermatu kontratuz (adibidez, Iametzaren lokaletan sute bat egongo balitz).

Erantzun denborari dagokionez, zalantzak edo gorabeherak izanez gero bezeroari arreta emango zaio Iametzako lan-ordutegiaren barruan. Behin eskaera jasota, Iametza ahalik eta erantzunik azkarrena ematen saiatuko da, ahal bada egunean bertan edo hurrengo egunean konponbidea emanaz. Inzidentziaren konplexutasuna handia bada, erantzun denbora ere luzatuko da. Kasu horretan inzidentziaren egoeraren informazioa helaraziko zaio bezeroari.

Aplikatutako proiektuak

- Errenteriako Udala
- Ameztoi Anaiak
- Argia

ZEIN DA ZERBITZUAREN KOSTUA?

Zerbitzuaren prezioa kontratatutako estalduraren eta enpresa bakoitzaren implementazio-komplexutasunaren arabera da.

Kit Digitalaren diru-laguntzak

Europar Batasunak finantzaturako Next Generation EU Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, [Kit Digital programa](#) jarri da abian. Programa horren bidez, guztira **3.000 milioi euro bideratuko dira enpresa txiki, ertain eta autonomoi zerbitzu digitalak emateko laguntzetarako.**

Langile kopuruaren arabera, enpresek 2.000 eta 12.000 euro arteko bonu digitala eskuratu ahal izango dute. Finantzaketa publikoko bonu hori hainbat zerbitzu kontratatzeke erabili ahal izango da, besteak beste, Nextcloud bezalako bulego birtualeko tresnei lotutako zerbitzuetarako.

Hortaz, enpresak 50 langile baino gutxiago edukiz gero hurrengo diru-laguntzak jaso ahalko lituzke:

III segmentua 0 < 3 langile	II segmentua 3 < 9 langile	I segmentua 10 < 50 langile
250€/erabiltzaile (gehienezko 2 erabiltzaile)	250€/erabiltzaile (gehienezko 9 erabiltzaile)	250€/erabiltzaile (gehienezko 48 erabiltzaile)

Iametza Interaktiboak Agente Digitalizatzaile izateko baldintzak betetzen ditu, eta 2022/02/04an Kit Digital Programara atxikitzeke eskaera aurkeztu zuen. Eskaera SOLI/2022/CO32/00047965 espediente-zenbakiarekin izapidetu da.

«Next Generation EU» Europako Funtsek finantzaturako Kit Digital programarako Agente Digitalizatzaileak atxikitzeke iragarkiak, Espainiako Gobernuaren Eraldaketa eta Erresilientzia Berreskuratzeko Planaren barruan eta [abenduaren 29ko ETD/1498/2021 Aginduan](#) araututa dagoenak, ezartzen du kontuan hartu beharko dela [irailaren 29ko TransFP/1030/2021 aginduaren 9. artikulua](#), hau da, konstrukzio-planaren Reiliencia.

GALDERARIK BADUZU?

Etxeko martxa eta ingurukoen ordutegien menpe ibili ohi gara aurrera eta atzera beti. Bezeroen eskakizunei so, gutako askoren kasuan mugikorrarekin alde batetik bestera, goiz erdiko kafeari uko egin gabe, baina bulegoko ordutegiak errespetatuz eta bezeroei erantzunez.

Jar zaituzte gurekin harremanetan kaixo@iametza.eus helbidera posta elektronikoko bat bidaliz, edo 943 376 716 telefonora deituz. Atsegin handiz erantzun zuzenak emango dizkizugu zure galderak.



iametza

WWW.IAMETZA.EUS